


Martin Rua Urdangarin

F maila • 1 aipamena

Martin Rua Urdangarin (Beasain, 2010ko azaroaren 6a). Beasaingo La Salle Ikastetxean lehen hezkuntzako laugarren maila egiten ari da. Txikitatik artista, irudimentsua, eta kulturaren esparruan murgilduta dago. Musika gustukoena duen arren ipuinak garatzea ere gustatzen zaio. 2020an Egia da! idazlanarekin sailkatu da Beasaingo Udalak urtero egiten duen idazlan lehiaketan.



EGIA DA

Txikia nintzenean (4 edo 5 urte), amona Emiliak kontatu zidan triste edo bakarrik sentitzen zarenean zeruko izarrekin hitz egin eta lasaitu egiten zarela. Egun hartatik asteen bi aldiz edo, ohera sartzen naizenean, amaxori muxu eman eta gero, izarrekin kontutan egoten naiz. Egunean zehar egin dudana, zerk jarri nauen triste, norekin hasarretu naizen.... Nire kontuak...

Nik bakarrik hitz egiten dut, beraiek ez dute ezer esaten. A ze zozoak diren!

Zazpi urte nituenean entzuten zidaten ala ez galdetu nion nire buruari, jakinmina sentitu nuen. Beraiekin harremanetan jartzeko taktikaren bat behar nuen. Ordutik, beraiekin hitz egiten dudak bakoitzean, entzuten didaten galdetzen diet eta entzuten badidate keinun bat egiteko edo moduren batean adierazteko eskatzen diet. Baina, ez didate kasurik egiten! Hala ere ez dut etsiko, entzuten didatela uste dut, ziur nago!

Atzo taktikaz aldatu nuen. Esaten diedana entzute badute nire logelako balkoian seinaleren bat uzteko esan nien. Ea zer gertatzen den....

Gau guztia urduri pasa dut, ia ez dut lorik egin, bost aldiz jeiki naiz txixa egitera, hiru aldiz ura edatera eta bi aitaxo eta amaxoren ohera. Puff nekatuta nago! Baina merezi izan du, aitaxok goizeko zortziretan esnatu nauenean ohetik salto bat eginez jeiki, balkoiko atea ireki eta begira – begira gelditu naiz. A ze sorpresa!!!! Seaska bat zegoen eta barruan, ume txiki bat, mutila da, aupa!!! Bere ondoan, eskutitz bat zegoen: *“Kaixo Martin, noski entzuten dizugula. Lehenego egunetik hitz egin diguzun bakoitzean entzun eta laguntzen saiatu gara. Baina, hemendik aurrera umetxo honek batzutan duzun beldur eta tristura hori kentzen lagunduko dizu. Zure lana zaintzea izango da. Muxu bat zeruko izarren partetik”*.

Eskolarako bidean umeari, nire anaiari, zein izen jarriko diodan pentsatu dut, IZAR deituko da!! Irrikitan nago bera berriz ikusteko!! Eskerrik asko izarrei eta mila esker amona Emiliari.